

Azken 24 orduotan 52 ikasle sartu dira konfinamenduan

69 bizikidetza-talde egonkorretako kideak daude bakartuta, guztien artean %1,98

Asteazkena, 2021ko Martxoaren 31a

Azken 24 orduotan 52 ikasle sartu dira konfinamenduan. Horiekin, 1.355 ikasle dira egun beraien etxeetan daudenak, guztien artean %2,19. Bizikidetza-talde egonkorrei dagokionez, 40 ikastetxeetako 69 ikasgeletako kideak daude bakartuta, %1,98.

Honakoak dira azken orduotan bakartutako ikasleak: Buñueleko Santa Ana ikastetxeko lehen hezkuntzako 5. mailako 12 ikasle, Iruñeko Sagrado Corazon ikastetxeko Lehen Hezkuntzako 6. mailako 26 ikasle, eta Lodosako Ángel Martínez Baigorri Lehen Hezkuntzako 6. mailako 14 ikasle.